

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Elena Zurutuza San Sebastian

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Trintxer etxean jaioa, aita Arraiozkoa zuen eta ama Andoaingoa. Lau senide ziren, hiru neska eta mutila. Irungo Anaka auzora ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Zintak

PAS-028

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-07-11
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Baserriko lanetan, patroia rentzat

- **Erref:** PAS-028/002
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:04:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>San Pedron jaio zen. Aita hargina zen, jatorriz baserritarra, baina amarekin ezkondu zenean baserriko lanetan ibiltzea eskaini zieten. Itsasontzi asko zituen gizon batek (patroia) etxea eta lurrak jarri zizkien horretarako. Jornala txikia zen, baina ez zitzairen jatekoa falta: baratzeko produktuak eta arraina. Ekoiztutakoaren zati bat patroia rentzat zen.</p>

2. Eskolara joan, eta euskara baztertu

- **Erref:** PAS-028/003
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:04:44. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Eskolan hasi zenean, ez zekien erdaraz. Maistra euskalduna zen, baina ez zieten euskaraz hitz egiten uzten. Galiziarren seme-alabak asko ziren, eta euskaldunak bost bakarrik. Erdara ikasi, eta erdaraz bizitzen hasi ziren, tontotzat hartzen zituztelako bestela.</p>

3. Anai-arrebekin ere erdaraz; frankismoa

- **Erref:** PAS-028/004
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:09:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Ama Andoaingoa zuen eta aita Arraiozkoa. Hiru neska eta mutil bat ziren. Beraien artean erdaraz hitz egin zuten umetatik. Beldurraren sasoia zen; Radio Andorra entzuten zuten ezkutuan eta eskolan bandera espainolarekin kantatu behar zuten. Falangekoak hitzaldiak ematera joaten zitzaizkien eskolara.</p>

4. Trintxerpeko baserriak

- **Erref:** PAS-028/007
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:14:43. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:

<p>Bera umea zela, etxeak eraikita zeuden. Trintxerpeko baserrien izenak esaten ditu.</p>

5. Arrantzaleak etxeratzean, familiarekin Donostiara bazkaltzera

- **Erref:** PAS-028/009
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:19:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza
- Itsasoa

Laburpena:

<p>Arrantzaleak hilabeterako joaten ziren itsasora. Pysbekoak 5-6 hilabeterako. Etxera bueltatzean, batzuetan seme-alabek ez zuten aita ezagutu ere egiten. Horregatik, ohitura zuten etxera bueltatzean

emaztearekin eta umeekin Donostiara joateko bazkaltzera. Hala, umeak aita bueltatzeko irrikitan egoten ziren.</p>

6. Baserriko lanak

- **Erref:** PAS-028/011
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Jolas gutxi egiten zuen umetan. Etxean aita eta morroia izaten ziren. Zaldia zuten eta hiru behi. Ur biltegi bat zuten, eta gerra garaian arrakalatu egin zen; aita bi ur putzu egin zituen, eta han garbitzen zuten berdura eta marmitak freskatu. Egunetan bitan jezten zituzten behiak, eta ezin ziren esne biak nahastu.</p>

7. Patroiarentzat esnea eta barazkiak prestatzen

- **Erref:** PAS-028/012
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:24:14. **Bukatu:** 00:26:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Patroiari eta haren familiakoei esnea eta barazkiak eramaten zizkieten, zaldikarroan, egunero. Aita eta morroia txandaka joaten ziren. Patroia Donostian bizi zen. Baserriko gainerako lanak.</p>

8. Aitari laguntzen, baserriko lanetan

- **Erref:** PAS-028/013
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:30:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Umetan berak egiten zituen lanak. Aitari laguntzen zion, baratzean, fruta biltzen eta zaldiarekin. Donostiatik janari soberakinekin bueltatzen zen aita, eta dena aprobeztatzen zuten: animaliei ematen zieten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-22

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com